

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Zerga ordenantzen aldaketari behin-behineko onespena ematea

Udal honek, 2021eko irailaren 30eko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onetsi zuen zerga ordenantza hauek aldatzea:

2. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
5. Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
6. Etxeak edateko urez hornitzearen eta estolderia zerbitzuaren tasa arautzen duen zerga ordenantza.
7. Establezimenduak irekitzeko baimenaren tasa arautzen duen ordenantza.
8. Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza.
 - 8.1. Zabor bilketa zerbitzu publikoaren tasa.
 - 8.2. Udalaren kirol instalazioen harpidedunen tasa eta leku horiek erabiltzeko sarreraren eta alokairuen zenbatekoa.
 - 8.3. Udal musika eskolaren zerbitzua eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa.
 - 8.4. Kultura jardueren zerbitzuaren tasa.
 - 8.5. Udalaren langileekin eta materialarekin zerbitzua eskaintzeagatik kobratu beharreko tasa.
 - 8.6. Agiriak emateagatik kobratu beharreko tasa.
 - 8.7. Hirigintzako lizentzien tasa.
 - 8.8. Udal hilerriaren aprobetxamenduaren tasa.
10. Udal jabari publikoaren erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen ordenantza.
 - 10.1. Bide publikoetako lurpea, lurrazala edo airea okupatzearen tasa.
 - 10.2. Bide publikoko lurretan laginketak edo lubakiak irekitzeagatik eta bide publikoetako zoladura eta espaloiak altxatzeagatik ordaindu beharreko tasa.
 - 10.3. Salgaiek, eraikuntza materialek, obra hondakinek, hesiek, eustoinek, astotxoek, aldamiok eta antzeko instalazioek erabilera publikoko lurra okupatzeagatik ordaindu beharreko tasa.
 - 10.4. Erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizunak edo erakargarriak jartzeagatik edo kale industriengatik, salmenta ibiltariagatik edo filmaketa zinematografikoak egiteagatik ordaindu beharreko tasa.
 - 10.5. Bide publikotik ikus daitezkeen pintada, pankarta, errotulu, propaganda eta iragarkien tasa.
 - 10.6. Bide publikotik ikusteko moduan edo bide publikoan bertan dauden erakusleihoak, erakusketak, kartelak, horma-irudiak eta iragarkiak jarriz okupazioa eragitearen tasa.

10.7. Ibilgailuak espaloiak zeharkatuz aparkalekuetara sartzeko okupazioa edo aparkatzeko eta edozein eratako salgaien zama-lanetarako bide publikoa erreserbatzeko okupazioa eragitearen tasa.

11. Auzo egurketentzako baso aprobetxamenduen tasa arautzen duen ordenantza.

18. Aguraingo Udalaren 610 mendian (Sotos eta Vargas) eta 611 mendian (Udala) abeltzaintza aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza.

21. Udalaren materiala mailegatzea eta lokalen erabilera lagatzea arautzen dituen zerga ordenantza.

22. Jolastoki eta goizeko ikasgela zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskala.

25. Ostalaritza eta antzeko establezimenduetako titularrek terrazak, mahai hankabakarren multzoak eta instalazio osagarriak instalatzeko egiten duten erabilera publikoko zoruaren okupazioa arautzen duen ordenantza.

26. Aguraingo Udalaren ordenantza, sasoiko langileentzako instalazioak erabiltzea arautzen duena.

Beraz, bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan ezarritakoarekin, argitaratu eta jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta, hala balegokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko; erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Agurain, 2021eko urriaren 1a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES